

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Euskarabideak aurreko legealdian izandako funtzio berak izango ditu

*Erabakia erakunde autonomo honen Gobernu Batzordeak hartu du, Euskararen Nafar Kontseiluak proposatuta*

Miércoles, 17 de agosto de 2011

Euskarabideak, Nafarroako Gobernuaren erakunde autonomo honek aurreko legealdian zituen funtzio berak izatea erabaki du, gaur, Hezkuntza Departamentuan egindako bileran. Erabakia Euskararen Nafar Kontseiluak proposatuta hartu du, atzo, Gobernuaren egoitzan egindako bileran.

Funtzio horiek, aipatutako erakunde autonomoaren eraketari buruzko [183/2007 Foru Dekretua](#)ren hirugarren artikuluan jasotzen dira.

Bestalde, zuzendaritza-organoak oniritzia eman dio Euskarabidearen egitura organiko berriari, Nafarroako Gobernuak ezarritako administrazioaren sinplifikazio- eta herstura-irizpideen arabera.

Halaber, legealdi honetan, organoa osatuko duten kide berriak aurkeztu ditu, eta agintaldia bukatu duten kideen lana eskertu du. Organoko lehendakaria, Jose Iribas, Hezkuntza kontseilaria da, eta haren barruan daude Euskarabideko zuzendaria, Maximino Gomez, eta Nafarroako Gobernuaren Departamentu bakoitzaren ordezkari bat.



Euskararen Nafar Kontseiluaren bilera